



**29. ZENBAKIA**  
**Hitzak zauritu hitzak**  
**sendatu... ondo**  
**aukeratu!**

## 0. AZALA

Hitz itsusiak gora, hitz itsusiak behera!

Askotan entzuten ditugun hitz zatarren erabileraz gogoeta egin al duzue? Gai al zarete hitz itsusiak zergatik erabiltzen ditugun azaltzeko? Edota zertarako balio duten esateko? Beharrezkoak direla deritzozue? Haien egokitasuna justifika dezakegu?

Has gaitezen, bada! Ea aldizkaria amaitzean galdera horiei erantzuteko gai zareten!

Izan ere, ez dezagun ahaztu gure nahia irakurzaletasuna pizteko arrastoak eta ekintzak eskaintzea dela. Oraingo honetan ere ez gara motz gelditu!

Altxorraren jolasa ezagutzen duzue? Ziur baietz! Ez badakizue zein den, galdetu norbaiti, edo, bestela, Interneten aurki dezakezue azalpena. Jolasaren nondik norakoaz jabetzean, konturatuko zarete helburua altxorra aurkitzea dela, eta horretarako arrasto batzuk egongo direla. Gure proposamena, hain zuzen, altxor moduan gure aldizkaria jartzea izango da.

Altxorra aurkitzean, hau da, aldizkaria esku artean duzuelarik, galdera batzuk egitea proposatzen dugu:

- Zer ageri da azalean?
- Zer esan nahi ote du “Hitzak zauritu, hitzak sendatu, ondo aukeratu”?
- ...



## 29. ZENBAKIA

### Hitzak zauritu hitzak sendatu... ondo aukeratu!

#### 1. GUREKIN JOLASTU NAHI?

Atal honetan, Elkarrek aisialdiari zuzenduriko iragarki bat dugu. Gure proposamena hauxe da:

- Irudiari erreparatu.
- Bertan diren jolasak zerrendatu orri batean.
- Amaitzeko, aukeratu jolas horietako bat, eta hartu tartetxo bat jolasaz goatzeko.

#### 2. AURKIBIDEA

Nondik hasiko gara? Gure proposamena, hauxe: lehenik eta behin, laburpentxoak irakurri; izan ere, horrek lagundu egingo digu aldizkariaren nondik norakoa kokatzen. Jarraian, orri batean 1etik 38ra arteko zenbakiak idatziko ditugu, lauki txikitan moztu, eta leku batean pilatuko ditugu. Amaitzeko, hau azaldu haurrari: Atera ezazu laukitxo bat, eta ea zein zenbaki ateratzen den! Begiratu aurkibidean zenbaki hori zein atal den, eta aurrera!

#### 3. PUPU ETA LORE

Pupu eta Loreren atalean, honako jolas hau proposatzen dizuegu. Lehenik eta behin, bion artean irakurri beharko duzue komikia, eta gero zera egin dezakezue!

1. Aurki ditzala haurrak gauza politak esaten diren laukiak.
2. Laukiak aurkitutakoan, irakur ditzala, eta azaldu iezaiozu bertan esaten dena.
3. Gero, aukera dezala gehien gustatu zaion laukia, eta azal dezala zergatik aukeratu duen lauki hori.
4. Eta, azkenik... saiatu bion artean hitzen erabilera egoki edo desegokiari buruzko bertso txiki bat sortzen! Ea zer sortzeko gai zareten!



**29. ZENBAKIA**  
**Hitzak zauritu hitzak**  
**sendatu... ondo**  
**aukeratu!**

#### **4. PIRRITX ETA PORROTX**

Antzeztea gustatzen? Utzi lotsa alde batera, eta animatu: zuen hurrei izugarri gustatuko zaie!

Dakizuen bezala, antzezlan bat prestatzeko, garrantzitsua da aurretik egin beharreko lana: norberak esan behar duena eta nola esan behar duen ikasi, pertsonaiak banandu, agertokia eraiki... Baina gure helburua ez da antzezlan landu bat lantzea, baizik eta tarte dibertigarri bat pasatzea. Beraz, buruko mina kanpora!

#### **5. BIZIPOZAREN JAIA!**

Aldizkariaren zatitxo berri hau irakurtzeko, zera proposatzen dizuegu:

Irakur iezaiozu izenburua haurrari, eta zirikatu apur bat orrialdeari begirada bat eman diezaion: “A zer-nolako argazki politak!”, “Nortzuk ote dira?”, “Ezagunen bat ikusten al duzu argazkietan?” eta gisako komentarioek lagunduko digute, gure ustez, haurrak testua irakur dezan edo, behintzat, testura gertura dadin... Ea lortzen dugun!

Ondoren, eta haurra gogoz badago behintzat, proposatu batek koloreztaturiko testu zatitxoak irakurtzea eta beste batek beste zatiak!

Irakurtzen amaitzean, galdetu ea bizipozaren jaialdi horretara joango litzatekeen! Arrazoitu dezala erantzuna... eta galdetu iezaiozu zer prestatuko lukeen bizipozaren jaialdi bat sortzeko aukera izango balu... Bota proposamenak haurrari!

#### **6. OSASUNA GURE ONDASUNA**

Tiritatxoren aholkuei jarraituz, zera proposatzen dizuegu oraingo honetan:

Irakur iezaiozu esalditxo hau haurrari: “Ingurua eta ingurukoak errespetatu”. Behin esaldia irakurrita, galdetu haurrari ea zeintzuk diren, argazkian agertzen diren ekintzetatik, ingurua eta ingurukoak errespetatzeko erabiltzen ditugun ekintzak! Ea zer esaten dizun! Ekintza honetan, zure laguntza eskaini.

Ekintzak adierazi eta gero, animatu Tiritatxoren aholkuak irakurtzera!



## 29. ZENBAKIA

### Hitzak zauritu hitzak sendatu... ondo aukeratu!

#### 7. DOZENAN 13

Aukera paregabea lasai-lasai jarri eta “Suaren jatorria” izenburuko kontakizuna irakurtzeko. Ez ahaztu irakurketan garrantzitsua dela hiru uneak errespetatzea, hau da, irakurtzen hasi aurretik, irakurri bitartean eta amaitzean. Guk ere pauso hauek ematea proposatzen dugu:

- Irakurtzen hasi aurretik, galdera hauek egin eta konpartitu: Badakizu nondik datorren sua? Zer gertatzen da irudietan?
- Bitartean: zer gertatzen da suarekin?
- Amaitzean: Zer gertatu da? Ulertu duzu? Zer gertatu zaio suari? Non gelditu da sua?...
- ...

#### 8. ZENBATAK

Zenbaten atala irakurtzeko, esan haurrari oraingo honetan berak hartuko duela irakurle papera eta berak irakurri beharko dizula zuri... Zuk entzulearena egin beharko duzu, eta zure haurra protagonista nagusi bilakatuko da!

Hala ere, kontuan izan ezinbestekoa dela berak benetan irakurtzeko gogoia izatea. Horrenbestez, ezertan hasi aurretik, ziurtatu benetan eta gogoz egin nahi duela! Ez ahaztu irakurketak plazerezkoa izan behar duela beti... Sekula ez du izan behar beharturiko zerbait...

#### 9. TXOKO TXIKI KUTTUNA

Oraingo honetan, har ezazu zati bakoitza, eta irakurri lasai-lasai. Zati bakoitzaren amaieran gogoetarako galdera batzuk egitea proposatzen dugu, adibidez:

Hitz zatarrak: zer deritzozu zuk? “Zakurraren ipurdia” esateak indarrik badu? Zer adieraz dezake horrek?...



**29. ZENBAKIA**  
**Hitzak zauritu hitzak**  
**sendatu... ondo**  
**aukeratu!**

## **10. EUSKAL HERRIKO ANIMALIAK: SATITSUA**

Atal honetan, Euskal Herriko animalia bitxi baten inguruan hitz egiten digute gure lagunak: satitsua. Ba al dakizu ezer haren inguruan? Ez badakizu, hauxe proposatzen dizuegu:

Komentatu haurrari animalia bitxi baten inguruko informazioa bilatuko duzuela. Aurkitu informazioa Interneten, liburuetan, bideoetan... Behin informazioa lortuta, hartu berriz ere aldizkaria, eta irakurri bertan dioena: Zein informazio gehitu dezakezue? Gure laguntxoek ematen diguten informazioa ondo al dago?...

Atal hau amaitzeko, aurkitu Interneten satitsuaren marrazki edo irudiren bat (koloreztatzeko erabiliko duzuen), eta inprimatu. Inprimatu eta gero, **KOLOREZTATU!**

## **11. FILOSOFO TXIKIAK**

Atal honetan ere “Dozenan 13” atalean aipatutako puntuei jarraituko diegu:

- Irakurri aurretik: Egin iezaiozue izenburuan agertzen den galdera zeuen buruari, eta erantzun banan-banan, bakoitzak berea. “Zergatik existitzen dira hitz itsusiak, ezin baditugu esan?”
- Irakurri bitartean: Zer gertatzen zaio Xerriri? Bada orain arte ulertu ez dugun zatirik?...
- Irakurri ondoren: Zergatik amorratu da Xerri? Zer egin du Mokofinek?...

## **12. MARTIN BERTSO**

Martin Jarrai dezagun jolasean!

Tapa itzazue lainoak, eta, irudiak aurrean dituzuela, osa ezazue komikia. Zuek zuena idatzitakoan, irakurri bertan idatzita zegoena, ea zer-nolako aldeak dauden!

Amaitzeko, galdera batzuk partekatzeko beta hartuko dugu:

- Zer esan nahi du honek: “Hitz batzuk, hobe barruan gordeta”?
- Eta “kolpeek mina larrian, eta hitzek barruan”?
- Aspaldi esan al dugu barruan gorde beharreko hitzik?
- Eta, amaitzeko, zer deritzozue Martin Bertsok dioen honi: “Egin barre zeure buruari, eta ez ondoan duzunari”?



**29. ZENBAKIA**  
**Hitzak zauritu hitzak**  
**sendatu... ondo**  
**aukeratu!**

### 13. LAGUN

Lagunen atala irakurtzen hasteko, zera proposatzen dizugu:

Komikiaren azken esaldia irakurri haurrari: “Zer eman, hura jaso”. Galdetu haurrari ea esaldia ulertzen duen, ea badakien esaldiak zer esan nahi duen...

Gero, azaldu iezaiozu gure hitzek, hitz horiek esateko moduak eta abarrek pareko izaten duela normalean... Azaldu gauzak modu onean esaten ditugunean erantzuna ona izan ohi dela, eta modu desegokian esaten ditugunean, aldiz, jaso dezakegun erantzunak ere halakoak izan daitezkeela...

Azaldu diozun hori hobeto ulertzeko, animatu haurra komikia berak bakarrik irakurtzera! Ea lortzen duen, irakurtzean, zure hitzez azalduko hori guztiz ulertzea!

Komikia irakurtzean, joan berriz ere hasierara, eta komikiaren izenburua irakurri: “Hitz politen bila”. Galdetu haurrari: “Zer da beraz, hemendik aurrera, erantzun positiboak jasotzeko egin beharko duguna? Baiiiii! HITZ POLITAK ERABILI!!! Ziurtatu haurrak mezu hori jaso duela.

### 14. MARIKALANBRE

Marikalanbreren atala bion artean irakurtzea proposatzen dizuegu. Komikia irakurritakoan, galdetu haurrari ea esperimendu bat egitea gustatu litzaiokeen, eta, hala bada, aurkitu Interneten esperimendu erraz eta polit bat (ez dadila arriskutsua izan!). Izan zaitezte une batez zuek ere Marikalanbre!

### 15. LARGABISTA

Irakurri komikia lasai-lasai. Zuen esku, irakurketa partekatu edo ez. Baina komikian ikasi eta ikusi duzuen erakuts iezaiozu haurrari egunerokoan, hau da:

- Erakutsi zuek joaten zareten harategiko langileak zer duen haragia mozteko lekuan.
- Erakutsi zumarra nolako arbola den.
- Erakutsi arbola bat nola hil daitekeen, zomorroak direla eta.

Ez ahaztu: irakurketa zenbat eta errealago edo gertukoago izan, orduan eta interes edo jakin-min handiagoa izango du haurrak!



**29. ZENBAKIA**  
**Hitzak zauritu hitzak**  
**sendatu... ondo**  
**aukeratu!**

## **16. MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE**

Istorio polit askoa kontatzen digute komiki honetan, hunkitzea lortzen duten horietakoa... Istorio honetan, Tourette sindromea duen haur bat ageri zaigu. Komenigarria ikusten dugu sindromearen inguruan informatzea komikia irakurri aurretik, gero zure haurrari informazio egokia eman ahal izateko.

Sindromearen inguruan informazio bildu eta gero, azaldu haurrari komikian Tourette sindromearen inguruan hitz egiten dutela eta sindromea zer den azalduko diozula.

Amaitzeko, irakurri komikia nahi duzuen bezala, eta animatu haurra Ane Pirataren ahotik irakur ditzakegun esaldi politak edo esanguratsuak komentatzera... Adibidez: “Salto egiten duzunean, barruan daramazun ipotxak irribarre egiten dit...”, “Arkatzarekin egiten dituzun hiru kolpetxo horiek entzutean, poztu egiten naiz, nire ondoan zaudela gogoratzen naizelako...”. Komentatu haurrarekin zer-nolako garrantzia duen horrelako esaldi politak egiteak; sindromea, arazo gisa ikusi beharrean, alderdi positiboak izan ditzakeela ikusteak eta alor positibo horiek azpimarratzekak...

*Ainboa Mendizabal eta Saioa Ibarguren*